

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN JARRAIBIDEAK ESKAERAK AURKEZTEKO:

DEIALDIAREN EPEAK:

GARRANTZIZKO OHARRA: Jarraian zehazten diren epeak jarri dira, batetik, Ministerioak markatutako prozedura jarraitzeko eta, bestetik, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak deialdiko eskaeren tramitazioa kudeatu ahal izateko.

Laburbilduta, hauek dira kontuan izan behar diren datak:

- **Otsailak 9** – Deialdian parte hartuko duen hautagaiak borondate-adierazpena bidaltzeko azken eguna convocatorias.dgi@ehu.es)
- **Otsailak 29** - **AURREKONTUA ERANSKINA** bidali UPV/EHUk eskaera bete ahal izan dezan. Epea hilaren 7an amaitzen bada ere, komeni da 29a baino lehen sinatzea enpresak berak ere epe barruan sinatu ahal izan dezan.
- **Martxoak 7** – Deialdia itxi

Adierazitako epeak errespetatzen ez badira, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskaerak sinatzeko denborarik ez izateko arriskua dago, kontuan hartu behar baita eskaera-kopuru handia espero dela eta aplikazioan arazoak izan daitezkeela deialdiaren azken egunetan.

ESKAERAREN DOKUMENTAZIOA:

- **Eskaera** partzuergoaren (enpresaren) ordezkariak sinatuta.
- Erakunde parte-hartzaileen **adostasun adierazpena**. Automatikoki sortzen da aplikazioan sinadura elektronikoa egindakoan. Dokumentu horretan 18.7.b artikuluko zinpeko adierazpen guztiak daude.
- **Galdetegia jarduera nagusiekin (mugarriak) eta aurrekontua**. Automatikoki sortzen da aplikazioan sinadura elektronikoa egindakoan.
- **Memoria teknikoa:** dokumentu bakarra PDF formatuan (gehienez 4 MB), proiektua koordinatzen duen enpresak igoko du. **Ezinbestekoa da gehienezko orri kopurua errespetatzea, EZINGO BAITA ERREMEDIATU.**

Gehienez 100 orri izango ditu, letra-tamaina 11koa, eta azala eta aurkibidea aparte:

Egikaritze laburpena	2 orri gehienez
Helburuak eta berrikuntzak	10 orri gehienez

Deskribapen teknikoa eta lanerako plana	30 orri gehienez
Aurrekontua	10 orri gehienez
Partzuergoaren gaitasuna	13 orri gehienez
Emaitzen ustiapena	15 orri gehienez
Eragin sozioekonomikoa	8 orri gehienez
Nazioartekotzea	12 orri gehienez

- **Memoria teknikoaren eranskina (enpresentzat bakarrik)**
- **Lankidetzat hitzarmena**, legezko ordezkari guztiek sinatuta. PDF formatuan aurkeztuko da, eta gehienez 4MBkoa izango da.

Oharra:

Laguntza-eskaera erregistratu aurretik komeni da erregistratuko diren dokumentuak inprimatzea edo PCan gordetzea, batez ere galdetegia, kontuan hartu behar baita behin eskaera erregistratutakoan dokumentu hori ezingo dela kontsultatu eskaeraren aplikazioan.

GASTU HAUTAGARRIEI BURUZKO ARGIBIDEAK:

- **LANGILEAK.** Finantzatuko da ikertzaileek, teknikariek eta laguntzaileek, bai bertako langileek bai kontratazio berriek, proiektuan izango duten arduraldia. Finantzatutako lan orduak proiektu gauzatzeko bakarrik izango dira.
- **EKIPAMENDUA.** Arau orokorra izango da **EZ DELA ONARTUKO INBENTARIAGARRIAK EROSTEA** Unibertsitatea partaide duen kostu marjinalen modalitatearen bidez. Salbuespenez onartuko dira proiektu honetarako bakarrik erabiliko diren ekipo/programa espezifikoak, aldez aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzak onartuta.
- **MATERIALAK.** Proiektuarekin zerikusi zuzena duen material suntsikorra eta kontsumigarria eskuratzeko gastuak finantzatuko dira. **Ez daude sartuta bulegoko materiala eta informatikako material kontsumigarriak** eskuratzeko gastuak.
- **KONTU AUDITORIA.** Erakunde onuradun bakoitzeko eta urteko 1.200 eurora arte finantzatuko da (gastu hori aurrekontuan sartu behar da).
- **AZPIKONTRATAZIOAK.** Parte-hartzaile bakoitzaren aurrekontuaren **% 50 gehienez**, eta inoiz ere ez partzuergoko enpresei (**Oharra:** azpikontratazio guztiak Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez kudeatu behar dira).
- **BESTELAKO KOSTU ZUZENAK.** Patente-eskaerek eragindako gastuak, aholkularitza gastuak (enpresarentzat **BAKARRIK**) kontratuak, laguntza teknikoa eta **bidaiak** finantzatuko dira, eta **gehienez 2.000**

euro emango dira parte hartzen duen erakunde bakoitzeko eta urteko. EZ dira finantzagarriak izango biltzarretan, jardunaldietan edo bestelako hedapen jardueretan parte hartzeko bidaiak. BAKAR BAKARRIK onartuko dira langile-gastuen atalean adierazitako langileen bidaiak baldin eta justifikazioan edo laguntza-eskaeran izenez zehaztuta agertzen badira.

AURREKONTUAK EGITEKO ARGIBIDE BATZUK:

- **Lehenengo urtealdian** ez da gastu handirik aurreikusi behar: gomendatzen da aurrekontua **azken hiruhilekorako bakarrik** eskatzea. Arrazoi bat dago horretarako: deialdi hau normalean urte amaieran ebazten da, baina beste batzuetan ez bezala, **EZ DUTE SOBERAKINIK PASATZEN**, eta gastatu ez den dirua, beraz, itzuli egin beharko litzateke. Ministerioa, bestalde, arazoak jartzen ari da luzapen eskaeretan.
- Lehenengo urtealdian, eta bete beharreko barruko epeak direla eta, **ezingo da azpikontratazioetarako dirurik eskatu** (ez luke denborarik emango Kontratazio Publikoaren Legean ezarritako prozedura jarraituz egiteko eta dirua galdu egingo litzateke).
- Arau orokorra izango da **EZ DELA ONARTUKO INBENTARIAGARRIAK EROSTEA** Unibertsitatea partaide duen kostu marginalen modalitatearen bidez. *Salbuespenez onartuko dira proiektu honetarako bakarrik erabiliko diren ekipo/programa espezifikoak, aldez aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzak onartuta.*
- Langileak kontratatu behar izanez gero (PIC Doktorea / Lizentziatua) jarraian adierazitako orduko kostuaren arabera egingo da kalkulua.

KONTRATAUTAKO LANGILEEN KOSTUAK	
PIC doktorea	27,80 €/h
PIC ez doktorea	24,50 €/h
21. art.	1. eta 2. urtea: 11,45 €/h 3. eta 4. urtea: 14,40 €/h
22. art.	26,85 €/h

Pertsonal kontratatzeako kostuak gutxienekoak dira, euskotramoak, hirurtekoak, ... gehitu behar badira, pertsona kontratatuaren arabera azken kostua aldatuko da eta.

Ez dira finantzagarriak izango bertako langileen kostuak, hala ere derrigorrez sartu behar dira aurrekontuan kostu orokorra eta erakunde bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoa zehazteko, eta jarraian adierazitako kategorien arabera orduko kostua ezarriko da.

BERTAKO LANGILEEN KOSTUAK	
Katedraduna	41,00 €/h
Titularra	29,00 €/h
Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak	15,10 €/h
Ramón y Cajal	25,95 €/h
Juan de la Cierva	17,65 €/h
Laguntzaileak	30,00 €/h.
Agregatuak	28,10 €/h
Atxikiak	23,65 €/h
Arduraldi osoko elkartuak	Ikerketaren arloko Errektoreordetzan galdetu
Ikerbasque	0 €/h
LIU lanaldi mugatuan	0 €/h
LIU lanaldi osoan	Ikerketaren arloko Errektoreordetzan galdetu

Garrantzizkoa: Ikerketarako gehieneko ordu kopurua **urteko 1.000 ordu dira**. Hala ere, aurrekontua egitean delako ikertzaileak guztira zenbat ikerketa proiektutan parte hartzen duen izan behar da kontuan.

Deialdi honetan aplikatzekoak diren **ZEHARKAKO KOSTUAK 7,50€/h dira**.